


Aretxabaleta,
1993ko azaroak 25

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



Ekintzaz betetako eskola

• Berri-Zahar
eguna

• Loramendi
Literatur
Lehiaketa

• Kirolak:
Andres Gutierrez



Izena: Xabier
Abizena: Mendizabal
Non jaio: Azkoitian
Non bizi: Azkoitian
Lanbidea: Idazkaria
Ezkondua? Ez

•Aretxabaletako Udaletxeko idazkaria

• **Lo egiteko arropa?**

Pijama

• **Zer ikusten duzu telebistan?**

Telebista gutxi ikusten dut, asteburuetan pelikularen bat edo, baina oso gutxi.

• **Eguneko momenturik onena?**

Lanetik urteterakoan

• **Ze kirol praktketan duzu?**

Bat ere ez, batzuetan mendian ibiltzen naiz

• **Dutxatu edo bainatu?**

Dutxatu

• **Afiziorik?**

Afizio berezirik ez dut, mendia da behar bada gehien gustetan zaidana.

• **Lanean gustora non?**

Hementxe udaletxean

• **Ze lan egiten duzu etxean?**

Lantzean behin amari lagundu

• **Bizitzeko lehen pisua ala azkena?**

Erdikoa

• **Funtzionaria izateko gogorik bai?**

Berdin dit funtzionaria izan ala ez

• **Gabonak tristeak edo alaiak dira?**

Jai egun bereziak dira, ez tristeak ez alaiak

• **Bizitzeko, bakarrik ala beste norbaite-**

kin?

Bakarrik hobe.

• **Irakurtzen duzu horoskopoa?**

Ez dut sekula irakurtzen

• **Zeri diozu beldurra?**

Zinegotziei

• **Tabernak ze ordutan itxi beharko lirateke?**

Oraingo ordutegia ondo iruditzen zait

• **Gauzak erosteko denda haundiak ala txikiak?**

Ahalik eta haundienak

• **Zer egingo zenuke Urkulun?**

Urkulu dagoen moduan utziko nuke

• **Zela ikusten dituzu Realeko atzeritarrak?**

Txarto, ez dutelako gauza haundirik egiten

• **Eta gaztetxeak?**

Gaztetxeak ondo daudela uste dut

• **Ze iruditzen zaizu intsumisioa?**

Intsumisioa primeran ikusten dut

• **Zerbitzurik faltan botatzen duzu herrian?**

Ez naiz bertakoa, beraz, ez dakit ze zerbitzu falta daitekeen

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Ekologikoan egiten da.

Zela ikusten duzu bertsolari txapelketa eta aurten irabazlea nor izango da?



**Osane Ayastui
(Langabezian)**

Ondo ikusten dut, jende asko elkartzen da txapelketetan eta hori ona da. Txapelketa irabaztea, Aitor Sarasua gustatuko litzaidake, baina bestela Egaña eta Peñagarikano



**Andoni Antxia
(Langilea)**

Txapelketak ondo ikusten ditut, nahiz eta asko ez entenditu. Espero dut txapelketa bukagarri, herriko seme bat bertan dagoenez, txapel-dun izatea.



**Gurutze Mendia
(Langilea)**

Nik ez ditut asko jarraitzen, baina pentsatzen dut ondo daudela. Irabazle izatea, Aitor Sarasua gustatuko litzaidake.



**Angel Bengoa
(Langabezian)**

Ondo ikusten ditut, guk etxean asko jarraitzen ditugu.

Aurten irabazle Peñagarikano ikuten dut.

KARTAK

Hiru kaleratze eta mehatxuak Lucio Garayn

Lucio Garay enpresakoa den Uribesalgo taldeak 3 langile kaleratzea salatzen du LAB sindikatuak. Hiru langile hauek orain bertan jarraitu beharko lukete enpresako fijo gisa. Kaleratutakoak hauek dira: Arturo Nogueiras eta Manuel Guisado (LAB sindikatuko enpresako komitekoak) eta Gotzon Lete (LAB sindikal sekzioko arduraduna).

Gertaerak 1990eko maiatzak 22tik datoz. Orduan Lucio Garayn lanean ari ziren 8 langilek inspektzioan langileen uzketa ilegala zela eta salaketa jarri zutenean. Hau langileen estatutuetako 43. artikuloa-k zigortuta dago. Lan inspektoreak bertara etorriaz langileen uzte ilegal hau bertan ikusiaz berretsi egin zuen.

Guzti hau gertatuaz eta

Lucio Garay galtzen aterako zelako lan magistraturara alegatzen bazen, enpresako zuzendaritzak langileei akordio bat sinatzea eskatuko die. Akordio honetan idatziz hauxe adierazten zen: enpresak 3 urteren buruan enpresako langile fijo gisa kontratatuko zituela. Akordio hau 1990eko urriaren 9ko datarekin Inem-eko bulegoetan aurkeztu zen, beraz hor datza.

Pasa den Azaroaren 5ean, kaleratzea zela eta, giza auzitegian demanda aurkeztu ondoren, kontziliazio ekitaldia egin zen. Honetan enpresaren ize-nean, abokatua berronartzearen aurka agertu zen. Hori dela eta arazoa honen erabakia epailetaren zain dago.

LABetik zenbaitetan eskatu zaie akordaturakoa

betetzeko. Felix Galfarso-ro, gerentearen erantzunak bezalakoez erantzun zaie "ez pentsa bildurrik ematen diguzuenik"

Bestalde, Jose Uribesalgo enpresako komiteko 3 hauek kaleratzeko aprobetxatu du beste langileak mehatxatzeko: berak inposatutakoa sinatzen dute edo lantegia Zaragozara aldatzen du eta langile batzuk hau sinatzera ukatzean, ez badutela sinatzen enpresa itxiko duela eta gainera 40 miloi dituela sinatzen ez duen edozein langile kaleratzeko.


- Gainera, Jose Uribesalgotik foro desberdinetan eta batez ere Lucio Garayn zera adierazten du: Hiru langileok sartzen badira enpresa itxiko duela.

Kolpaketa guzti hauen aurrean, LABetik ez gaude

gertu horrelako ekintzak eta mehatxuak onartzera. Zera adierazten dugu: "Jose Uribesalgotik, Felix Galfarso-roren laguntzarekin enpresa botatzen badu, horrek erakarriko duen ondorioen eta gertatuko denaren erresponsabilitatea beregan jausiko dela, eta hori dela eta enpresako langileen, lan agintarien eta herriaren aurrean erantzun beharko duela".

Gainera LABetik horrelako ekintzak ez direla berrriak esaten dugu, zeren horrelako ekintzak aplikatuz gain ez ditu bakarrik Lucio Garayn aplikatzen, negozioak dituen toki guztietan baizik, "utilajes Uribesalgo S.A.n", Astoren edo Arrasate Kiro-lak-en bezala.

**LAB
(LANGILE ABERTZALEEN
BATZORDEA)**



Leintz Gatzagan feria

Azaroaren 13an eta 14ean, Leintz Gatzagan, San Milixanak 93 jaien barruan, artisau langintzen feria izan zen, Gatzagako artisau kolekti-boak antolatuta.

Bertara hurreratu ginenok keramika, bitxi-gintza, beiragintza, aintzinako musika tresnak,

armak... egiten ikusi-genituen bertan elkartu ziren 10 artisau inguru.

Egun bi horietan inguruko herrietako jende ugari elkartu zen Gatzagan. Antolatzaileek, arrakasta hori ikusita, etorkizunean horrelako feriak antolatzen jarraitzeko asmoa dute.

Bertsolari txapelketa

Azaroaren 12an bertso munduko atxabaltar baten notizia heldu zitzaigun: Jon Sarasua bertsolariak ez zuen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa parte hartuko, joan zen hilean El Salvadorretik Bertsolari Elkarteari bidali zion eskutitz baten bidez jakinarazi zuenez.

Jon Sarasuak Hendaiain kantatu behar zuen azaroaren 14ean Txape-

lketaren laugarren kanporaketan, baina azkenean bere anaia Aitorrek bete zuen Jonen lekua.

Aitorrek ondo bete zuen bere lana. Lizasoren ostean, Aitor Sarasua izan zen bigarren onena 694,5 punturekin. Abenduaren 5ean eta 8an Eibarren eta Bilbon egingo diren finalerdietarako klasifikatzea lortu zuen.



• Joan zen domekan, azaroaren 14ean, Behobia-Donostia lasterketa izan zen. Urtero moduan, Atxabaltatik taldetxoak joan zen. Denera 20-30 atxabaltar inguru joan ziren. Lehenengo atxabaltarra Donostiako helmugan Alfonso Luermo izan zen, 71. postuan, 1h 11' 18"-ko denboraz eta bigarrena Joseba Larrinaga 86. postuan 1h 11' 41".



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
Diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

SAGASTA
ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABAETA



Atzeratuen aldeko bigarren jaialdia

Urteroko ohiturari jarraituz, joan den zapatuan atzeratuen aldeko jaialdia izan zen eta zapatu hone-tan, 27an, bigarren zatia izango dugu.

Bigarren jaialdia, gabe-ko 10etan hasiko da Zaraia zineman. Bertan ekintza berezi bat egingo da, Arantz-a Iza Loramendi ikastola-ko andereñoari omenaldia hain zuzen ere.

Ekintza horretaz gain atzeratuen jaialdian honako egitaraua izango dugu: Atxabaltako musika eskolako soinu-joleek honako pieza hauek joko dituzte. Aiora Filarmendik Nikolas Risolen Errusiar kantu folklorikoa, Oihana Arajolaleibak Ambrosio Belladaren "Divagando", Arantzazu Arietaleaniz-beaskoak Bruno Clair-en "Asfalto" eta azkenik Ekaitz Oianguren eta Arantzazu Arietaleaniz-beaskoak Renato Buiren America w Waltzes eta America Songs.

Arrasateko Eskola poli-teknikoko Tuna ere bertan izango dugu. Sei kantu eskainiko dituzte: Las cintas de mi capa, La vajerita, Amalia rosa, Clavelitos, Alma corazón y vida, Alma lanera.

Ondoren Juan Luis Lekunberri eta Begoña Lekunberri izango dira honako pieza hauekin: Nola ez, Mozkorrote, Euskeraz ta euskeraz, Ipanemako neska eta Zoriona.

Horretaz gain, Isabella Blezien (pianoan), Patxi Nafarrete (tenorea) eta Jose M Mendizabal (baritonoa) izango dira.

Ekitaldiari bukaera emateko bertsolariek eta Aretxabale-tako koruak ere parte hartuko dute.

Ekintza horiekin eman-go zaio bukaera atzeratuen aldeko jaialdiari. Antolatzaileek adierazi digutenez, azaroaren 27an egingo den jaialdi horretan ere jende ugari batzea espero dute.

V. Loramendi Literatur Lehiaketa

Aretxabale-tako Eskolarteko V. Loramendi Literatur lehiaketa antolatu da abendurako. Lehiaketa horretan Atxabaltan bizi edo ikasten duen edonork parte hartu dezake. Lan guztiek euskaraz beharko dute izan eta sail bitan banatuko da lehiaketa: poesia eta narrazioa. (3-4 mailakoendako narrazioa besterik ez). Sail bakoitzean lau maila bereiztuko dira; o.h.oko 3-4 mailak, O.H.Oko 5-6 mailak, O.H.Oko 7-8 mailak eta 15-18 urtera bitartekoak. Gaia libre-a izango da.

Luzeerari dagokionez, 3-4 mailakoek gehienez orrialde bi egin beharko dute, 7-8 mailakoek poesian 20 lerro gutxienez, narrazioan 3 orrialde gehienez eta 15-18 urtera bitartekoak 40 lerro gutxienez, 4 orrialde gehienez.

Lanak sobre baten barruan entregatuko dira, sobrearen kanpokaldean lanaren izenburua, gatzizena eta ikasten dabilen maila adierazi beharko da. Sobrearen barruan beste sobre bat joango da, kanpokaldean gatzizena eta barruan norberaren datuak.

Parte hartu gura du-zuenok Euskara zerbitzura bidali beharko dituzue lanak, abenduaren 22an bukatuko da epea.

• Aretxabale-tako Hirugarren Mundu taldeak marrazki eta literatur lehiaketa antolatu du. Gaia hirugarren mundua eta solidaritatea da eta epea abenduaren 3ra arte izango da. Zehaztu beharreko datuen artean: izen-abizenak, maila, gela eta ikastetxea. Atxabale-tako 18 urtetik beherako neska-mutil guztiek daukate lehiaketan parte hartzeko aukera. Aukerak lau dira; kartela, ipuina, bertsoak eta poesia. Sari banaketa Zaraia zineman izango da abenduaren 18an, zapatua, 12etan.

• AEDren 10. eta Arrasate Pressen 5. urteurrena direla eta jaialdi berezia izango da azaroaren 26an Arrasateko Kiroldegian.



Juan Ramon Arana diapositiba lehiaketa

Almen Kirol Elkarteak Juan Ramon Aranaren omenez lehenengo diapositiba lehiaketa antolatu zuen azaroaren 7an.

Lehiaketan Deba Garaiko edozeinek parte hartu zezakeen. 21 lagun aurkeztu ziren, Aretxabaletako zazpi lagun, Arrasateko bat, Bergarako bederatzi eta Eskoriatzako lau. Parte hartzaileek zortzi gai zituzten, zazpi antolatzaileek ipinitakoak eta zortzigarrena gai librea.

Partehartzaileak euren diapositibak atarata gero, antolatzaileen eskuetan utzi zituzten eta epaimahaia elkartu os-

tean, honako hauek ditugu irabazleak:

Diapositiba bilduma onenean lehen saria Daniel Santos Rodriguezendako izan zen, bigarren postuan Jose Luis Gonzalez Garraigordobil eskoriatzarrak geratu zen eta hirugarrenean, barriz, Jose Aguaio Sanchez.

Argazkirik onena Xabier Areitio Boliñagarena izan zen, eta bigarren postua Dionisio Nogales Murri-llorendako izan zen. Azkenik, jubenil onenaren saria, Gorka Areitio Asurabarrenak eskuratu zuen.



Bosniarrek gurekin jarraituko dute

Urte bat bete behar da, Abenduaren 7an hain zuzen ere, Sarajebo inguruko hemeretzi errefuxiatu bosniar, Eskoriatzara etorri zirenetik.

Hasiera batean, harriera proiektua sei hilabeterako zegoen pentsatuta, baina Balkanetako "gerra egoerak" berdin jarraitzen duela ikusita beste sei hilabetez luzatzea erabaki zen. Laster beteko dira sei hilabete horiek eta gero zer gertatuko den ez dago baterare argi.

Eskoriatzako "harriera proiektuaren" alde lanean dihardutenek adierazi digutenez, Bosniako errefuxiatu horiek beste

urte baterako geratzeko baimena daukate, dagoeneko berriro dizkiete pasaporteak. Baina hemendik aurrera euren kabuz bizitzen ahalegin du behar dute, lana topetan eta bitzita normal bat erosten.

Dena dela, euren alde lanean dabiltzanek jakin badakite egoera ez dela hain samur lana aurkitzeko modukoa, beraz, ahal duten gutzian laguntzen saiatuko direla azpimarratu digute. Dagoeneko Eskoriatzan dauden errefuxiatuetatik lagun bi lanean dabilta, bata arkitektu lanetan eta bestea etxeak garbitzen.


**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

ANDONI ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
☎ 79 10 60



**EGUZBIGRAF
INPRIMATEGIA**

**Aldizkariak
Inpresoak**

Bulegoko materialak

Basabe poligonoa, F-0-4 - Tfnoa: 79 29 41 Fax: 79 18 44



Berri-Zahar eguna

Euskaldun barriak euskaraz gizarteratzean laguntzea da Berri-Zahar taldearen helburua. Taldea Beinke elkartearen barruan dago eta abenduaren 11n bere eguna ospatuko du. Egun berezi horren nondik norakoak jakin guran Beinkeko ordezkariekin jarri gara harremanetan: "Berri-Zahar taldearen bidean orain arteko ekin-tzetan martxari heldu eta jendea animetan ibili gara maiatzetik hona. Beti izan dugu helburutzat euskaldun barriak zaharragoak direnekin harremanak sendotu ditzaten bideak jar-tea, euskaltegitik kanpo-ra ere euskara harreman hizkuntza bihurtu dadin euskara ikasteko ahale-gina egiten dutenendako. Horregatik, eta ba-tez ere izotza apurtzeko,

sortu zen Berri-Zahar eguna antolatzeko as-moa".

Berri-Zahar eguna abenduaren 11n izango da. Egun honetan prota-gonista nagusiak bi izan-go dira. Batetik, euskal-dun zaharrez osatutako herriko gazte kuadrilak eta bestetik euskaltegian euskara ikasten dabil-tzan euskaldun barriak.

Eguna bi zatitan ba-natuta dago: arratsal-dean, Iturrigorri fron-toian jolasak egingo di-tuzte, kuadrila horietan euskaldun barriak egon-go dira sartuta. Horren ostean afari berezi bat egingo da Arlutz pareko garajeon. Afari horretar-ako antolatzailleek ma-haiak, aukiak eta ardoa ipiniko dituzte, baina kuadrilek afaria ekarri beharko dute. Afari os-

tean Tapia eta Leturia tri-kiitarietara primerako erromeria izango da.

Antolatzailleen ustez egun horrekin hiru hel-buru lortu gura dira: "Egunaren helburu nagu-sia bai egun horretan eta baita aurretik ere alaita-sunean lehenengo elka-rrizketak bideratzea da. Hortik aurrera egun ba-tean zehar harremana izan duten jendearekin elkarriketak hastea es-pero dugu. Gure biga-rren helburua, herriko kuadriletan euskara ikas-ten dabiltzan ahalegi-naren kontzientzia eta la-guntza beharra azpima-rratzea eta horrekin ba-tera euskaldun zaharren artean alfabetatze gogo-a zabaltzea. Eta azkenen-go helburua taldearen izena eta helburua he-rrian zabaltzea".

Intsumisioa

Gipuzkoan intsumi-soen aurka egiten dabil-tzan epaketak direla eta, joan zen astean, Arrasa-teko gaztetxean bilera in-formatiboa izan zen, Ka-kitzat, AGAKO eta Jarraik antolatuta.

Orain arte talde ho-riek, Jarrai eta Kakitzat, talde antimilitaristak ba-natuta ibili dira lanean, baina hemendik aurrera intsumisioaren aldeko lanean bat egingo dute, Deba Bailara mailan be-hintzat. Ez da ahaztu behar gure bailaran 150 gazte inguru intsumisoak direla eta gazte horieta-tik % 20a juizioaren zain dagoela.

Bilera horretan, gaur egun intsumisioaren ara-zoa zela dagoen azaldu zuten eta hiritar guztiei deialdi bat egin zieten, azaroaren 18ko greban, eta hemendik aurrera egingo direnekitaldi guz-tietan parte hartu deza-ten.

Baina euren borroka aurrerago eroan gura dute, Deba Garaiko tal-de desberdinekin intsu-misioaren aldeko plata-forma herritarra sortze-ko asmoa dute. Platafor-ma horretan talde poli-tikoek, kulturalak... le-kua eukiko lukete, eta baita gaiarekin sentsibili-zatuta dagoen edozeinek ere. Baina plataforma hori oraindik proiektua besterik ez da.

"Urte danetan negu aldera literatur hila dago bertan maratoi joku ugari eta ekintza gehiago guztia ondo irtetzen bada guretzat askoz nahiago baina jendea hurbilduz gero askoz ere ederrago"

Maidar Aizkorbe
Kepa Errasti



Kurtzebarri eskolatik hezkuntza inguruan erreflexionatuz

Haurren hezkuntza da eskolaren funtsa. Baina ... zer da hezkuntza?

Hezkuntza haurren nortasunaren garapena izango litzateke eta nortasun horigizartearen eskakizunen aurrean erantzuteko gaitasuna da. Gaitasun akademikoa batetik, afektiboa (norberearen maitasuna eta besteekiko errespetua) bestetik, eta gizarte integrazioarako gaitasuna azkenik, gure kasuan euskal gizartearen izango litzatekeena.

Eskolak umearen garapenerako landu beharrekoak diren gaitasun guztiak, ezinbesteko oinarritzat hartu beharko ditu eskainiko duen proiektua osatzerakoan. Azpimarratzekoa da, bestalde, zein erantzukizun haundia izango duen haurren gertuko inguruak (fami-
liak batez

ere) eta, zela ez, gizarteak berak, bere antolamenduak.

Beraz, hezkuntza proiektu bat ez da momentu konkretu batean hasten den prozesua, norbaitek horrela erabaki duelako, modu batean edo bestean haurrak heziaz doaz Baina funtsezkoa da proiektu bat osatzerakoan, haurren nortasunaren definizioan erabili ditugun gaitasun guztiak ezinbesteko helburu kontsideratzea. Hori da, hain zuzen, eskolan zeresana daukatenak: eskolako irakasleak, umeen gurasoak eta jakina, ikasleak.

Hala eta guztiz ere, ez da samurra, gaur egun, gizarte eskakizunak asetzeari, ez da samurra, "norgehiagoko" eskaintzen artean "onena" eskaintzea, eta ez da samurra gurasoendako, aurrean ditugun proiektu eskaintza guztietatik, "bat" aukeratzeari.

Edozein eskolatako

"Zenbat eta eskola komunitateko jende gehiago murgildu proiektuan, orduan eta aberatsagoa emaitza."

hezkuntza proiektua, egunegun gauzatu beharreko eginkizuna da, peperetan baino ekintzetan adierazi beharrekoa beraz, egunerok lanean saiatuaz eta landuaz, berrikuntza aurrerakoiak geltara eroanaz....

Zenbat eta eskola komunitateko jende gehiago murgildu proiektuan, orduan eta aberatsago izango da proiektu horrek emango duen emaitza.

Kontestu horretan kokatzen bada, Kurtzebarri eskolan kurtsoan zehar egindako diren beste batzuekin batera, oraingoan egitera doazen "Kurtzebarri eskola, literatur bideetan" izendatu den ekimena, eskola komunitateko agente guztiak elkarlanean eta herriko liburutegiaren laguntzarekin antolatuta izan dena eta eskolak duen hezkuntza helburuetariko adierazpentxo bat izan gura duena. Eguneroko lan txiki horiek haundi egiten gaituzte.

Ikasleei zuzendutako ekintzak

Azaroan zehar eskolaurreko haurrek "**Albumak**" osatuko dituzte, gai desberdinak erabiliz: Natura ...

Hasiera Zikloko haurrendako "Ipuinaren inguruan" deritzan ekintza tailer erara antolatuz:

ABENDUAK 10

Koldo Amestoy ipuin kontalariak **4. mailako haurrendako** saioa **herriko liburutegian**.

ABENDUAK 13

Agurtzane Intxaurre ipuin kontalariak saio bi eskainiko ditu, **2. eta 3. mailetakoko haurrendako herriko liburutegian**.

ABENDUAK 14

Andu Lertxundi eta Juan Cruz Igarabide idazleek **POESIA ERREZITALA** eskainiko diete **5. eta 6. mailetakoko ikasleei herriko liburutegian**.

ABENDUAK 17

IÑAKI MENDIGUREN idazle eta itzultzailearen solasaldia **7. eta 8. mailetakoko ikasleekin herriko liburutegian**.

ABENDUAK 21

Eskolaurreko eta 1. mailako umeei zuzendutako **IPUIN KONTAKETAK** eskolako hainbat irakasleren eskutik, bereziki eskolan prestatutako txoko batean.

ABENDUAN ZEHAR

BERTSO PAPER LEHIAKETA egingo da **3. mailatik, 8. mailara arteko ikasleen** artean irabazleen izenak:.....

Abenduaren 22an egingo den **GABONE-TAKO JAIALDIAN** ezagutzera emango dira.

IRAKASLEGOARI ZUZEN-ZUZENEAN

ABENDUAK 14

"HITZAK BEROTZEN" izenburupean, irakaslegoari zuzendutako hitzaldia. **Juan Kruz Igarabideren** eskutik.

Eskolako gurasoei zuzendutakoak

"**GURASOEN JAKINDURIA GUREGANAZTEN**" izendatutako ekimena. "**KONTU ZAHARRAK**" izeneko idazlanetan oinarritutako den ekintza.

Herri guztiari begira

ABENDUAK 9

HITZALDIA

Ondua: **6,30etan**

Tokia: **Eskolako Liburutegian**

Norendako: **7 - 14 urte bitarteko haurren gurasoei**.

Hizlaria: **NEREA ALZOLA**

Gaia: "**BIBLIOTEKA BEHARREZKOA OTE?**"

ABENDUAK 13

Ondua: **6,30etan**

Tokia: **Eskolako liburutegian**.

Norendako: **3 - 7 urte bitarteko haurren gurasoei**.

Hizlaria: **MARIAN BILBATUA**

Gaia: **HIRU GALDERA HAURREN IPUINEI BURUZ. ZE IPUIN? ZERTARAKO? ETA HELDUEN ZEREGINA?**

ABENDUAK 20

8. mailako ikasleek "GAUTXORIAK" liburua **AZTERTU DUTE** herriko **8. mailako neska mutilendako, herriko liburutegian, saio bitan, 3retan eta 4retan**.

ABENDUAK 21

IRAKUR MARATOIA

Ondua: **Egun osoan zehar**.

Tokia: **Eskolako Aretoan**.

(Hitzaldi egunetan ikasleek osatutako hainbat liburuzken erakusketa izango da)

Txikitan bere amonarekin paseatzena joaten zenean, amonak landareen izenak eta aplikazioak azaltzen zizkion. Horrela etorri zitzaion senda belarren afizioa, handik aurrera liburu desberdinak irakurriz bere ezaguerak handitu egin ditu. Hori denori, jakin guran Susana Arnaizekin egon gara berbetan, mundu honetako bitxikeriak kontatu diezazkigun



Susana Arnaiz: senda bedarrak

• **Landarearen zati guztiak erabiltzen dira?**

• Dena, zuztarrak, ostroak, loeak eta baita fruituak ere, baina segun ze motatako landarea den.

• **Landarea erabiltzeko zerbait egin behar zaio?**

• Bi modu besberdinetan erabili dezakezue: lehorrak eta freskoak. Lehorren barruan ere bi zatitan banatuko geni-

tuzke; naturalak; hauek gerizpetan lehortu behar ditugu, leku leun batean eta noiz behinka buelta batzuk emanaz; eta besteak artifizialak; berogailu batean, 45 gradutan, sikatu behar da.

• **Zenbat denbora eroaten dizu afizio honek?**

Udaberrian eta udan denbora asko ematen diot, biltzeko garaia da.

• **Non hartzen dituzu landareak?**

• Batzuk zelaietan hartu daitezke eta beste batzuk altura handiko mendietan. Adibidez "arnika" bsterik ezin da hartu Pirineoetan edo 2.000 metroko alturan.

• **Edozein landare batu daiteke?**

• Batzuk desagertzen hasita daude, jendeak, abonuak eta nekazaritzako tresnak hiltzen dituzte landareak. Jendeak jakin beharko luke landare guztiak ezin direla

hartu, bestela desagertuz doazelako.

• **Zeresango zenioke, horretara dedikatu gura duen bati?**

• Lehenengo batu gura dituen landareak ezagutzeko gauza izan behar da. Gero poliki-poliki gura dituen landareak batzen hasi, derri-gorrezkoa da liburuak kontsultatzea edo ulertzen duen jendearekin berba egitea.

• **Emango zenuke errezetarik?**

• Oso ezaguna eta Euskal Herrian oso ugaria den landare baten errezeta eman diezazueket. Landare hau ekainetik, irailera bitartean loratzen da. Bere izena "Ustaila" da.

Ostroarekin; tea egin dezakegu eta oso ona da depresioa kentzeko. Bi goilaratxo belar, litro 1/4 bat ur hotzetan eta ondoren irakin egin behar da. Eguneroko baso bat hartu behar da.

Lorarekin; olioia egin dezakegu. Oliba olioarekin nahastu behar da eta elaboratu ondoren, zaurietan erabiltzen da. Lunbago, erreuma eta erreduretarako ona da.

ANGELINES
Autozerbitzua

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

MATIKUA
TABERNA

Azata auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABAETA

AITZIBER
NIÑOS

• Umeentzako moda
• Amagaia

Lezama Merkatal Zentruan

Askatuak taldean ibilia da, aurten Arrasateko taldean dago. 196ko altuera du, 19 urte eta hegaltza eskolta postuan jokatzen du. Honez gain atxabaltarra da. Berau Andres Gutierrez dugu. Ilusioz dabil lanean saskibaloian munduan norbait izateko.



Andres Gutierrez: saskibaloian munduko promesa barria

• Noiztik datorkizu afizio hau eta nork bultzatu zintuen?

Saskibaloian gusa-tiloa nire anaia nagusiak sartu zidan. Gu igeriketan ibiltzen ginen, baina German nire anaia 16 urterekin aspertu, igeriketa utzi eta saskibaloian hasi zen. Nik ere, belarrietan arazo batzuk zirela eta, igeriketa utzi behar izan nuen eta saskibaloian sartzea erabaki nuen.

• Non eman zenituen lehen urratsak eta zenbat talde ezagutu dituzu?

Hasi, Atxabaltan sortu zen talde batean hasi nintzen, urte bi egin nituen hemen. Gero Arrasatera joan nintzen. Han nengola Taugres-Baskonia eta Forun Filatelikokin hartu eman batzuk izan nituen baina azkenean ez ziren bide onetik joan. Euskadiko selekzioan ere izandakoa naiz, Espainiako txapelketa jokatu nuen. Ho-

nen ondorioz, Askatuak taldekoak nitaz interesatu ziren eta zenbait proba egin ostean bi urtetarako kontratua egin zidaten. Urte bat bakarrik egon naiz izan ere, Askatuak ez zuten ACBra igotzeko txartela lortu eta diruz txarto zabiltzatenez, nirekin ez zutela kontaktatzen esan zidaten eta Arrasatera itzuli naiz.

• Zela zaude orain Arrasaten?

Benetan pozik nago, jokatzen nabileta hori garrantzitsua da oso.

• Zortzi partidua galdu barik daroatzazue, horrenbesteko diferentzia dago beste taldeekiko?

Aurten Arrasaten zenbait fitxaketa on egin dituzte. Horrela oso talde konpetitiboa osatzea lortu dute, rotazio handiko taldea daukagu, hau da, ba-

tek irteten badu beste batek ondo bete dezake bere tokia, taldea bide onetik joateko hau ezinbestekoa da jokoaren oreka eta erritmoa mantentzea lortzen dugulako.

• Ze aspirazio daukazu?

laz ez nuen zorte handirik eduki Askatuak taldean, ez nuen jokatzen eta horrek morala asko jaitsi zidan. Orain, barriz, oso pozik eta lanean kementsu nabil. Gainera nola goazen ikusita behar bada promozioan sartu gaitzke, honek Espainiako beste talde batzuekin jokatzea suposatuko luke eta jendeak ikusten bazaitu ate asko zabal dakizkizu.

• Zure idolo eta talde gogokoena?

Nire idoloa Magic Johnson zen eta taldeei dagokionez gogokoena Lakers daukat. ACBtik beti Real Madril gustatu izan zait, nahiz azken urteotan ez ibili oso ondo.

Eskoriatza K.E eta U.D.Aren arteko neurketa 0 eta 1 bukatu zen Atxabaltako taldearen alde. Emaizta hori dela eta U.D.A taldea sailkapenean Eskoriatzarekin batera agertzen zaigu. Datorren domekan beste derbi itxuroso bat ikusteko aukera izango dugu Ibarra futbol zelaietan, Aloña Mendi taldearen kontrakoak. 2. errejonalekoek banako berdinketa lortu zuten lliintxa taldearen aurka. Neskak, barriz, fin dabilta eta Ostadar taldeari 2 eta 0 irabazi zioten, nahiz eta aurreko astean Elgoibarren 1 eta 0 galduta.

Duranean egin zen ziklo-kros frogan, kadete mailan Mikel Roldan atxabaltarrak, Dorleta taldekoak 3. postua lortu zuen lehenengoarekiko 2' 50"-ra.

Hainbeste urte pasa ez ba dira ere, ziur asko, jendearen gomutagatik gero eta errazago joaten direla iraganaren sepia koloredun argazkiak, udaberriko laino goiztarra jasotzen den lez. Horregatik, eta hain denbora gutti igaro bada ere -1986an desagertu ziren argazkian agertzen diren etxeak- egoki deritzogu zuen begi aurrekaldara be-
rauek ekartzera, iraganaren gogorapenak, sikera une batez, lehenarekin lot gaitzan.

Otalora kaleko argazki honek 14, 16 eta 18 etxebizitzak erakusten dizkigu. Beherengoa 18.a gaur egun pixkat haundiagoa da, lehen zegoen jardinetatik zati bat hartzen duelarik. Bi ate luzenka horietako bat atartearen zena eta bes-

tea nahiz eta gero bodega izan, gerra denbora herri-kartzela bezala erabili zuten nazionalak, bertan abertzale eta errepublikanoak giltzaperatzen zituztelarik.

16. zenbakidun etxeak gaur bezala jarraitzen du, 14.ak, ez ordea. Zeharo berriztuta dago. Atartearen lehengo tokian dago, Saldukora doan kantoian. Sarrera gainean oraindik ikus daitezke harrizko borobil bi. Horien arabera Aretxabale-tako etxerik zaharrenaren aurrean gaude. Borobil batetan zera dio "Se edificó en 863", eta bestean "Se reedificó en 1473 y 1878". Behar bada, eta behekaldeko egitura ikusirik garai batetan Posta etxea izan zitekeen. Ondoren XIX. mendean bertan bizi izan zen urte askotan Alkate izan zen Felix Urtubi, eta behekal-



dean antolatu Urtubi familiaren botika. Benetan ezaguna eta bitxia botika hura. Zenbat asma-kizun eta berezitasun ikusi ote zituzten orma

dean antolatu Urtubi familiaren botika. Benetan ezaguna eta bitxia botika hura. Zenbat asma-kizun eta berezitasun ikusi ote zituzten orma zahar hariek ! Beste batetan kontatuko ditugu bertako gertakizun eta pasarteak.

**A. Antxia
I. Urreta**

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandafrika zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den iturria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Arkarazon)

Aurreko lehiaketaren irabazlea IGOR OLAL-DE. Zorionak.



Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:

Urteak aurrera doaz



J.J. Aretxaga

Oraindik azaroan gaude eta oraindik atzeratu en aldeko beste jaialdia falta zaigu. Aurrekoan esan nizuenez, azaroaren 27an egingo den jaialdian **Arantxa Iza andereñoari** omenaldia egingo zaio. Baina badaukat beste kontutxo bat kontetako, aurkezleak nortzuk izango diren, bi izango dira eta. Batetik, ikastolako lehenengo promozioak eta orain Donostian bizi dena: **Iñaki Sarasua**. Eta bestetik, Kurtzebarri eskolako irakasle den **Resu Abasolo**.

Omenaldi berezia jasoko du **Ion Antxia Alberdik** datorren domekan Urkulun. Murruxok antolatutako mendi astearen barruan, haretx bat landatu eta plaka ipiniko da Urkulun bere omenez.

Omenaldia ez dakit, baina **Josefina Zubizarretak** ez du meritu makala. Datorren abenduaren 7an 99 urte beteko ditu. Atxabaltako zaharrena da, eta horrela jarraitu dezala. Urtebetetzeak aitatu ditugunez, azaroaren 17an **Coprecik** 30 urte bete zituen. Gaur egun bizi

dugun krisiarekin ospatzekoa da. Hori dela eta, **Jokin Ugartek**, zuzendaritza batzordeko lehendakariak, firmatutako zorion tarjeta banatu zaie bazkideei. Bertan jarten duenez, zahartzarora ailegetako asmoa dauka Coprecik eta 50. urtemugararte agurtzen ditu bazkideak.

99rekin hasi, 30ekin jarraitu eta orain 5era jaitsiko gara. Ondoko herrian ataraten duten Arrasate Press aldizkariak bost urte egin barri ditu. Hori ospatzeko Herri Komunikabideei buruzko 2. jardunaldiak antolatu dituzte. Guk ere bidaliko dugu errepresentazioa. **Itxaro Zubillaga** joango da Aretxagazetaren izenean zer garen erakustera.

Ondoko herrira joan den beste bat, baina oraingo hau lanera, **Jose Luis Eraña** izan da. Mondragoeko kiroldegiko kirol teknikari lanetan hasi da. Gasteizen IVEF egin du eta orain eukiko du ikasitakoa praktiketako eta esperimenterako aukera.

Esperimentua edo ez dakit zela deitu lehengo egunean **herriko bandak** egin zuenari. Azaroaren 14ean, domekan, kontzertua eman zuten. Nik egia esanda ez nuen ikusi, jakin ez nekien eta. Helburua jendea sorpresan harrapatzea bazen ondo, baina horrelako gauzak ganoraz egin behar dira, lehenago abisatu behintzat. Eta programa euskaraz idaztea ez da hain gatxa, detaile horiek...



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

26

EGUAKOTXA

- Arratsaldeko 7retan Zaraia zineman Murruxiko Mendi Elkartek antolatuta, **Enri Lukasek "ANAPURNA HEGOA" diapositiba emanaldia** eskainiko du.

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman: "AGUILA DE ACERO III" **filmea**.

27

ZAPATUA

- Murruxiko Mendi Elkartek antolatuta,

umeentzako jolasak eta tirolina izango dira.

- Gaueko 10etan Zarai zineman, **Atzertuen jaialdia**.

28

DOMEKA

- Murruxiko Mendizale Elkartek antolatuta **Ion Antxia Alberdiri omenaldia** egingo zaio.

- Futbol partidua: U.D.A-Aloña Mendi K.E.

- Arratsaldeko 4,30retan eta 7retan, Zaraia zineman "AGUILA DE ACERO III" **filmea**.

4

ZAPATUA

- Zaraia Mendi taldearen urteera berezia, abenduaren 4tik 8ra.

- Gaueko 10etan Zaraia zineman: "STALINGRADO" **filmea**.

5

DOMEKA

- Murruxiko Mendizale Elkarteen urteera: **Zubiara**.

- Arratsaldeko 7retan eta 4,30etan: "TODO POR MI CHICA" **filmea**.

6

ASTELEHENA

- Arratsaldeko 7retan eta 4,30etan Zaraia zineman: "TODO POR MI CHICA" **filmea**.

9

MARTIZENA

- Arratsaldeko 7retan eta 4,30etan: "MADE IN AMERICA" **filmea**.

ARETXAZOKA

Lana

- U.B.I. ko ikasle batek O.H.O. ko klase partikularrak emango litzuzke; asignatura guztiak. Interesatuak telefonoz hauek deitu: 79 69 63 edo 77 03 30.

- Irakasle titulatuak klase partikularrak ematen ditu O.H.O. ko 1go mailatik 8. mailara arte. Tfnoa: 77 10 72.

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Mitarte 15 kalean. Deitu ezazu 79 74 95 telefonora, arratsaldeko 8,30etik aurrera.

- Etxebizitza bat salgai. Interesatuak Pagaldy dendan galdetu.

- Pisu bat salgai dago. Interesatuak deitu 79 02 73 telefonora.

Etxebizitza

- Pisu bat alokatu gura dut. Interesatuak deitu 79 09 00, telefonora eta Joxeanez galdetu.

- Pisu baten bila nabil Aretxabaletan. Bi edo hiru logela jantzita eukitea gustatuko litzaidake. Interesatuak deitu 79 84 67 telefonora.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

**GARAJE
OSKAR**
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA
TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIAK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 77 07 94
79 91 84

ITURGINTZA

J.J.

Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

ARLUTZ

TABERNA


Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mitarte Kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

**T
X
I
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15


Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

**JAUREGI
OKINDEGIA
(Panaderia)**

Otalora, 10
☎ 79 57 47

BITXITEGIA



MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

Otalora Kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57
ARETXABALETA

**DORLETA
TABERNA**

Loramendi, 10
☎ 79 94 15




MAPFRE
Aseguroak

Angel Zubillaga
Aseguruen ordezkaria

Errekabarren,3
Tfnoa: 77 11 76


20550 ARETXABALETA

 MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

**IBARRA
ESTANKOA**



Tabakoa eta
ikasmateriala



Bizkaia, 3
Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI "

AKEITA ETXEA



Aralar Kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 beheha
Tfnoa: 79 70 66

ANEK BAI JAKIN!

